

# EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA

[1961-1985]

PAKO ARISTI



erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

1. argitalpena: 1985eko azaroan
2. argitalpeneko 1. inprimatzea: 2020ko martxoan

Azaleko irudia:

Erein

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-498-2

L. G.: D 125-2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Euskal Kantagintza berria  
1961-1985

---

Pako Aristi

JON ESKISABELEN HITZAURRE BATEKIN

EDIZIO ZUZENDUA



## AURKIBIDEA

<i>HITZAURREA 2020AN (Jon Eskisabel)</i>	5
SARRERA	21
1 Kriseilu txiki bat: Mixel Labeguerie	27
2 Ez Dok Amairu	45
3 Baga, Biga, Higa eta Ez Dok Amairuren adiosa	101
4 Frankismoaren azkenak	119
5 Txanpinoien aroa	161
6 1976: Talde berriak historiaren orri bat pasatzen	175
7 1980: Pop/Rockeroak	213
8 1964-1985, 21 urte: Euskal kantagintzaren adin nagusitasuna	283
BIBLIOGRAFIA	315

## KANTARIEN AURKIBIDEA

Benito Lertxundi	92   157   186   234   292
Errobi	133   202   298
Gorka Knörr	150   195
Haizea	177
Hertzainak	264   304
Imanol	141   204   225   245   261   301
Itoiz	187   230   247   255   294
Izukaitz	182   232   238
Jotakie	308
Lourdes Iriondo	49
M-ak	275
Mikel Laboa	85   153   225   259   273   303
Mixel Labeguerie	36
Niko Etxart	206   257   299
Orbela	292
Oskorri	127   190   222   249   276
Peio eta Pantxoa	124
Ruper	215   252   303
Txomin Artola	135   177   198   292
Urko	146   193   261
Xabier Lete	80   156   196

## HITZAURREA 2020AN

JON ESKISABEL

HOGETA HAMALAU urte igaro dira Pako Aristik euskal kantagintzari buruzko kazetaritza-lan aitzindari hau idatzi zuenetik, liburuak bere baitan hartzen duena baino denbora tarte handiagoa beraz. Hamabost urte nituen, hamasei egiteko, argitaratu zenean. Hartzen dut orduko argazki bat eta ez dut arazorik nire burua bertan errekonozitzeko, denboran atzera egin eta izozturiko irudian azaltzen den pertsonaren orduko izaera, zaletasunak, beldurrak etortzen zaizkit gogora, baina berehala konturatzen naiz zenbat aldatu naizen urteotan. Antzeko zer-bait gertatu zait Aristiren liburua berriz irakurtzean. Memoria ariketa bat izan da, ahaztuxea nuen euskal kantagintzaren gaztaroko argazki bat, (ia) dena egiteko zegoen garai batekoa, berriz hartu eta urte mordo igaro arren gaurkotasunik galdu ez duten hainbat gairekin topo egitea: kantagintzaren eragin soziala, hizkuntzaren hautua, profesionalizazioaren auzia, musikarien arteko harremanak... Izan ere, hastapen haietako kantari eta musikariek zituzten asmoak, erronkak, kezkak eta oztopoak eta gaur egungo askok dituztenak antzekoak dira, baina argazkia oso bestelakoa da orain: euskarazko kantagintza

aldatu da itxuraz, hazi egin da, kolore eta forma berriak hartu ditu, jakin du eboluzionatzen eta azalberritzen. 60 urtera bidean ezin ditu zimurrak eta ajeak ezkutatu, jada ez ditu gaztea zeneko adina begirada erakartzen –beti izan ditu lehiakide erraldoiak ondoan, baina azken aldian ugaritu egin zaizkio–, baina osasuntsu dago bide berrien xerka jarraitzeko.

Euskal kantagintzak «adin nagusitasuna» lortu berritan idatzi zuen Aristik liburua, eta etorkizunari itxaropentsu begiratzen zion egileak: «Gai da [euskal kantagintza] nahi duena egiteko, edonora joateko, ez dugu bere heriotza iragartzen duten apokaliptikoengan sinesten. Euskal Herrian edozer gauza normalizatzea zaila bada ere, kantagintzak bide hori darama. Nahi duten kantariak profesionalizatzen dira, beste batzuk ekonomikoki trankil bizitzen hasi dira». Urteek ematen duten talaiatik begiratuta, bat etorriko gara profesionalizazioarenean baikorregi azaldu zela esatean –aurten 25 urteko ibilbidea etetea, horietako asko musikari profesional gisa, erabaki duen Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuri irakurri diogu duela gutxi: «Prekarietatea izugarria da. Oraindik ere arraroa egiten da norbaitek profesionalizazioaren bidea hartzea. Konplexu horiek barruraino sartuta ditugu. Oraindik ez dugu musikaria langile bezala tratatzen»<sup>1</sup>–, baina egia da berandu baino lehen iritsi zela normalizazioa deitzen dugun egoera horretara gure kantagintza arlo batzuetan: sormenaren aniztasunean, diskogintzan, grabazioen kalitate teknikoan, ekipamenduetan, kontzertuen antolaketa sarean... Beste batzuetan, emakumearen leku eta ikusgarritasunari dagokionez, urte gehiago behar izan dira aurrerapausoak ematen hasteko, eta beste zenbaitetan, musikak telebistan jasotzen duen tratamenduari edota musika kazetaritzaren egoerari dagokionez, ez gaude 80ko hamarkadan baino hobeto.

---

<sup>1</sup> *Berria*, 2019-06-21.

Dena den, punk-rocka Euskal Herriko kaleak hartzen hasia zen garaian idatzita dagoenez liburua, egokiagoa litzateke esatea euskal kantagintza adin nagusitasunean baino nerabezaroan harrapatu zuela Aristik. Liburuan agertzen diren abeslari eta taldeetako askok apenas egina zuten ibilbidearen zati txiki bat –garrantzitsuena?– hura argitaratu zenean: Hertzainak-ek disko bakarra zuen –beste bost grabatuko zituen talde mitiko bilakaturik banandu aurretik–; Mikel Laboak hogeitau urte zeramatzan abesten, baina artean hirugarren disko luzea, 6, prestatzen ari zen –beste sei grabatuko zituen hurrengo hogeitau urteetan–; Ruper Ordorika ere gaur egun arte iraun duen musika ibilbide oparotik hirugarrena grabatzen ari zen, *Bihotzerreak*; Benito Lertxundik eginak zituen ordurako bere lan esanguratsuenetako batzuk –*Zuberoa / Askatasunaren semei* (1977) eta *Altabizkar / Itzaltzuko bardoari* (1981)–, baina Ordorikak bezala, asko zuen sortzeko eta abesteko oraindik; Oskorrik hamar urte zeramatzan agertokietan, 2015ean itxitako ibilbide paregabearen laurdena baino ez; Jotakie entsegu lokalean ari zen bere hiru diskoetatik lehenengoa lantzen; Imanol Larzabalek beste hamar disko egingo zituen 2005ean zendu aurretik; Niko Etxartek ez ditu lan asko argitaratu geroztik, baina taula gaineko jarduna ez du inoiz utzi... Beste batzuek (Xabier Letek, Pantxoa eta Peiok, Gorka Knorrek, Urkok, Errobik, Izukaitzek...) dagoeneko musika utzita edo bere onena emanda zuten. Liburua dendetara iritsi zenean, gehienok ez genuen ez Kortatu ez Fermin Muguruza ezagutzen; *rock radikal vasco* izeneko olatuaren astindurik bortitzena iristeko zegoen, eta artean kasetea eta biniloa ziren musika salerosteko formatu bakarrak gure merkatu txikian...

Hamar urte nahikoa izan ziren musika eszena osoa berriz iraultzeko; mendea amaitu aurretik agertuko ziren Negu Gorriak, Su Ta Gar, Tapia eta Leturia, Berri Txarrak, Kepa Junkera, Dut, Anari, Ken Zazpi, Zea Mays, Anestesia, Balerdi Balerdi,



King Mafrundi, Mikel Urdangarin, Gozategi, Akauzazte, Sorotan Bele, Selektah Kolektiboa, Hemendik At!, Bide Ertzean eta beste hainbat. Haien eskutik triki-pop, noise-pop, rap, post-hardcore, heavy, thrash-metal, afro-reggae, power-pop, industrial, eurodance eta nahi beste etiketa gehitu ziren euskarazko kantagintzaren hiztegiara. Kreatibitateak eztanda egin zuen 90eko hamarkadan, eta egonkortu egin da mende honetan.

Lehen aldiz hiru belaunaldi ari dira agertokietan kantuan. Benito Lertxundi dugu hasiera-hasierako kantagintza berriaren ordezkari bakarra, eta Mattin Lerissa edota ETBko *Goazen* saioan ezagutzera emandako Ainhoa Larrañaga ditugu iristen azkenak, 19-20 urterekin. Tartean, sustraiak eta kimu berriak lotzen dituen enbor sendo bat dugu, 10 eta 25 urte arteko ibilbidean esperientzia eta disko sorta oparoa bildu duten bakar-lari eta taldeez osatua.

80KO HAMARKADAREN ERDIALDEAN nekez imajina lezake inork handik 15 urtera ordenadorearen bidez gure diskoak munduko beste edozein pertsonarekin trukatu ahal izango genituenik, musika kasetean eta biniloan entzutetik mp3 formatuan entzutera hain azkar pasatuko ginenik, CDaren hilobiratzeari hasiera emanez. Hurrengo urratsa *streaming* plataforma digitalen sorrera izan da, ia musika guztia, iraganekoa eta berriena, etxean, lantokian, autobusean entzuteko aukera eman digutenak. Teknologiak musikarekiko gure harremana aldatu du, baita musika-industria eta musika bera ere. Eszenatokia guztiz aldatu da, joko arauak beste batzuk dira orain, eta musikaren munduan dabilen orok egoera berri horretara egokitu beste erremediorik ez du izan.

Euskal Herrian ere musika ekoizteko, zabaltzeko eta entzuteko ohitura berriek markatu dute mende hasiera. Eraginik handiena diskogintzan izan du iraultza digitalak. Diskoen

salmentan oinarritutako negozio ereduaren gainbeherak eraitsi egin du, deuseztatu, 70eko hamarkadan oinarriak jartzen hasitako gure industria txikia, eta sektorearen atomizazioa ekarri du. Diskoetxe tradizionalak jada ez dute ekoizpenaren zati nagusia argitaratzen, erreferentzialtasuna galdu dute –ez dute merkatua eta kontsumoa lehen bezain beste baldintzatzen–, eta ziurrenik ez dute inoiz berreskuratuko.

Saldu gutxi saltzen da, baina egin, egiten dira oraindik diskoak.

2019an, azken urteetako joerari eutsiz, 150 eta 200 disko artean argitaratuko dira euskaraz. 80ko hamarkada osoan urteko ekoizpenak ez zuen 30 diskoen langa gainditu. Kopuru horrek nabarmen egin zuen gora 90eko hamarkadan diskoetxe berrien sorrerarekin –Esan Ozenki (gero, Metak), Gor, Gaztelupeko Hotsak...– eta lehen aipatutako sormen goraldiarekin; disko-gintzaren garai oparoena izan zen, artistikoki eta ekonomikoki, baina 2006tik aurrera amilduz joan da etengabe eta 80ko hamarkadako zenbakietara itzuli da. 2018an, 36 disko argitaratu zituzten sei diskoetxe hauek: Agorila, Baga-Biga, Elkar/Oihuka, Gaztelupeko Hotsak/Errabal, Gor eta Mauka/Airaka. Gainerakoak, 160 inguru, autoekoizpenak izan ziren –hemen beharrezkoa da zehaztea: gaur egun argitaratzen diren ia disko guztiak, baita betiko diskoetxe baten zigiluarekin ateratzen direnak ere, autoekoizpenak dira, egileak berak hartzen dituelako bere gain grabazioaren gastuak–. Aldaketa teknologikoek ematen dituzten erraztasunak baliatuz sortzaileak eurak izaten dira kasu gehienetan bere lana bakarka argitaratzeaz arduratzen direnak –batzuetan autogestio zigilu baten pean: Bonberenea Ekintzak, Taupaka, Ipar Orratza...–, baina zenbait lekutan taldeak elkartzeraz jotzen hasi dira, elkarri lagundu eta disko bat kaleratzeak dakarren lanari modu kolektiboan aurre egiteko. Bidehuts izan zen eredu horren aitzindari, eta gerora sortu dira Erraia Gasteizen, Mukuru Urretxu-Zumarragan, Almehuna Oñatin...

Sortzaileek euren lanaren gaineko kontrol erabatekoa nahi dute orain, ez dute bitartekaririk nahi, edo ahalik eta gutxien –manager enpresak dira, beharbada, krisi honetan bizi-rautea lortu duten bakarrak–, horrek lana handitzea ekarriko badie ere. Kantuak sortzea eta grabatzea ez ezik, grabazioa ordaintzea, diskoa fabrikara bidaltzea, diseinua enkargatzea, diskoa banatzea, kontzertuak lotzea, promozioa egitea, sare sozialak kudeatzea... gaur egungo musikari askoren eginkizun berriak dira. Lan handia dakar autoekoizpenak, baina satisfakzioa handiagoa da. «Gure belaunaldiaren marka da autoekoizpena. Hori izan da gure betiko lehen aukera», esan du Izarok, gaur egungo abeslaririk gazteen eta arrakastatsuenetakoak.<sup>2</sup> Baina ez da gazteen edo talde txikien kasua bakarrik. 1981az geroztik Benito Lertxundiren disko guztiak Elkar diskoetxeak argitaratu ditu, azkena izan ezik: *Ospakizun gauean* (2018) plazaratzeko, Kantaita Enea zigilua sortu du Lertxundik berak etxekoekin. Mentalitate aldaketa sakon errotu da sortzaileen artean.

Internetek, eta batez ere sare sozialek, sortzaileen eta har-tzaileen arteko harremana ere eraldatu dute. Distantzia laburtu egin da. Sortzaileak zuzenean ematen dio zaleari bere lanaren berri eta instantean jasotzen du haren erantzuna. Diskoetxeak eta hedabideak, duela gutxi arte ezinbestekoak ziruditenak lan bati oihartzuna emateko, ez dira jada zaleengana iristeko galbahe bakarrak, zalea bera da galbahea. Zuzenean hautatzen du zer nahi duen eta zer ez. Diskoa bera ere (euskarri fisikoa) debalatu da, eta batez ere kontzertuak lotzeko beharrezko bitarteko gisa erabiltzen bada ere, beti ez da ezinbestekoa. Iban Urizar musikariak 2015ean sortutako *Amorante* proiektuak apenas argitaratu duen ezer –bost kantu formatu

---

<sup>2</sup> «Musikaren minak eta maitemina» (*Berria*, 2018-08-05).

digitalean eta binilozko single bat–, baina proposamen musikal aberats, pertsonal eta ezberdin bati esker haren izena ahoz aho zabaldu da eta Euskal Herrian maiztasunez jotzeaz gain Katalunian, Galizian eta Portugalen ere izan da.

Amorantek bezala, abestiak multzo txikietan plazaratzeko ohitura zabalitzen ari da gure artean, jendeak abesti solteak entzuten dituenek. Horrela, binilozko singlearen loratze txiki bat ezagutzen ari gara, lau kantuz osaturiko lanak ere gero eta ohikoagoak dira, eta garai batean disko *luzea* osatzeko hamar-hamabi kantu behar baziren, gaur egun zortzirekin nahikoa izaten da askotan. Plataforma digitalek saturazioa eragin dute, bilatu beharrik ez dago, etengabe heltzen zaigu musika, eta kontsumo azkarraren logika nagusitu da, erabili eta bota. Beraz, arrazoia ematen diogu Ramon Basantari esaten duenean musika patxadaz eta arretaz entzuteko testuinguruak sortzea «ekintza subertsiboa» bilakatu dela.<sup>3</sup>

2019AN GAUDE eta badira zortzi urte Euskal Herrian aro historiko berria zabaldu denetik. ETAK borroka armatua behin betiko uzteko hartutako erabakiak izan du eraginik arlo politikoan, jakina, baina musika eszenan ere islatzen ari da fase berria. Musika joerek eta abestiek informazio handia ematen dute tokian tokiko eta garaian garaiko gizarteari buruz, eta inon izan bada testuinguru soziopolitikoari loturik egon den kantagintzarik, leku hori Euskal Herria da. Garai bakoitzak izan du bere soinu banda, eta post-gatazka aro honek ere ezaugarri propioak ditu. Euskal gizarteak aldatzen ari den heinean musika hartzen dituen formak eta edukiak ere aldatzen ari dira, ezarian bada ere.

---

<sup>3</sup> *Kafe aleak. 121 disko irakurketa* (Kafe Arrastoak, 2012).

Azken bi hamarkadetan hizkuntza (euskara), estetika (punk-rock-metal-ska) eta mezuaren (letra politikoak eta konprometituak) arteko identifikazioa hegemonikoa izan da euskal eszenan. Hiru adar horien uztartzeak definitu izan du urte luzez euskal *mainstreama* edo korrante nagusia, eta haren inguruan eraiki dira nortasun indibidual eta kolektibo indartsuak. Sistema trinko horretan arrakalak azaldu dira azken urteetan. Batetik, hizkuntzarekiko jarreran aldaketa sumatzen da. Euskaraz besteko hizkuntza batean abesteak ez du garai batean entzule euskaldunen artean sortzen zuen asaldura pizten, eta egun espanturik gabe hartzen da euskaraz nagusiki abestu arren beste hizkuntza batzuetan ere –gaztelaniaz eta ingelesez batez ere– egitea.

Ion Andoni del Amo EHUko irakasle eta *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria* (Txalaparta, 2016) liburuaren egileak dioenez, euskal nortasunaren eta hizkuntzaren defentsa edo baieztapena ez da lehen bezain modu dramatikoan bizi instituzionalizazio prozesuen ondorioz. «Egun ez da sentitzen euskararen behar hori, angustia hori. Lehen, konpromisoa beharrezkoa zen, hizkuntza galtzen ari zelako. Orain, neurri batean, ziurtatutzat ematen da euskarak iraungo duela. Aurreko hamarkadetako musika euskaraz izan da, erregistro estetiko batekin. Karga handiegia hartu zuen euskarazko kantuarak, eta neurri batean, haustura estetiko hori ematen du ingelesak. Abestiei pisua kentzeko».<sup>4</sup>

Ez da soilik hizkuntza salbatutzat ematen dutela beraz, hizkuntzarekiko pertzepzioa ere badago horren atzean: euskara gai sakon eta transzendentalekin eta hizkera poetikoarekin lotu izan da sarri. Bestetik, edukietan ere haize berriak sumatzen dira. Aurrekoen zama bizkarrean ez duen belaunaldi bat iritsi

---

<sup>4</sup> «Aldaketa publikoan gertatu da» (*Berria*, 2017-07-26).

da kantagintzara eta ez da garai bateko estetika eta edukiakin identifikatzen. Zenbaiten iritziz, gehiegizko politizaziotik nolabaiteko despolutizaziora pasatzen ari gara. Gatazka, kritika sozial edo salaketako gaiak desagertu dira hitzetatik –emakumeen kontrako indarkeria eta immigrazioaren drama dira salbuespena– eta itxura eta mezu gogorretatik ihes egiten duten proposamenek hartu dute erdigunea. Bizitzaren ikuspegi atsegin eta baikor bat eskaintzen dutenak.

Horrekin bat letorke Gorka Bereziartua kazetariak egungoa izendatzeko Del Amoren liburuan erabilitako definizioa: pop garaia. Testuinguru politiko berrian jendeak ondo pasatu nahi du, dibertitu, abestu, nahastu, are dantzatu... ahal bada milaka lagunez inguratuta. Horrek azalduko luke jaialdi erraldoiek gurean ere duten arrakasta. Ekitaldi sozialak dira makrojaialdiak, zeinetan musika parrandarako aitzakia den, jende diferentea elkartu eta ondo pasatzeko bitartekoa, ez osagai garrantzitsuena. «Makrojaialdiek ekosistema perfektu bat eskaintzen dute. “Nik hemen egon nahi dut” moduko pentsamenduak eragiten dituzte, munduaren arrotzetik eta itsusitik babesten dute jendea», dio Fermin Etxegoien kazetariak.<sup>5</sup> Bizi esperientzia bat eskaintzen dio jendeari, taberna, gaztetxe edota aretoetako kontzertu txikietan aurkitzen ez dutena.

Orduan, zein da musikaren ahalmena gaur egun? Haren eragin soziala? Badirudi kontzientziak astintzeko, nortasun indartsuak eraikitzeko, eraldaketa pertsonal eta kolektiboak ahalbidetzeko edota nazio identitatea sortzeko garai batean zuen ahalmena nabarmen apaldu dela. Botere politikoa galdu du, eta aisialdiari lotutako kontsumogai bilakatu da, bat gehiago egungo aukera zabalaren barruan. Euskarazko musika testuinguru horretan lehiatzen da gaur egun. Seguruenik inoiz baino

---

<sup>5</sup> *Aho bete doinu #2* (Entzun!, 2016).

euskarazko musika gehiago entzuten da gaur egun, baina zailentzarik ere ez dago neurri berean ahuldu dela gizartean duen inpaktua eta eragina.

ETA, HALA ERE, etengabe ari dira talde berriak sortzen, etengabe ari dira diskoak grabatzen eta plataforma digitaletan zintzilikatzen... Askok zaildu da euskal produkzio osoaren segimendua egitea, eta ezinezkoa da lerro gutxi batzuetan laburtzea gaur egungo eszena. Ez baitago eszena homogeen edo nagusi bat, duela urte batzuk egon zitekeen bezala, eszena txiki ugari baidetik. Horietako bat, azken urteetan indar gehien hartu duena, rap musikarena da. Nazioartean aspalditik gazteen estilorik gogokoena den horrek 20 urte behar izan ditu bere lekua egiteko euskarazko agertokian. Ez du erraza izan. Mende honen hasieran Selektah Kolektiboa eta M.A.K. lehen taldeak azaldu zirenean izan ezik, euskal rapak ez du diskoetxeen bultzadarik jaso. Autogestiotik egin du aurrera, eta azkenik gizartean erreferentzialtasuna hartzen ari dela iradokitzen duten sintoma batzuk azaldu dira. Esaterako, 2zio hirukoteak egin zuen 2018ko Herri Urrats jaiaren kantua, eta Gure Esku Dago herri mugimenduak La Basu eta Aneguria aukeratu zituen –biak ala biak emakumeak, rap abeslariak eta gaztelaniaz abestetik euskaraz egiteko urratsa egin dutenak– 2018an Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen giza katearen sustapen kantua sortzeko. Antzeko apustua egin zuten Korrikaren antolatzaileek 2019ko edizioaren abestia Fermin Muguruzari eskatu ziotenean. Muguruzak, beti adi azken joerei, trap estiloko abestia ondu zuen, «Klika», eta nahigabe euskal musikaren definizioari buruz usuez iraganekoak ziren aurreiritziak berpiztu zituen sare sozialetan.

Euskara eta rap musika loturik doaz. Hegoaldean gaztelaniaz eta Iparraldean frantsesez nagusiki egiten den estilo batean

euskaraz abestearen kontzientzia zabaldu dute rap egileek. «Euskaldunak garen heinean ez dut ulertzen rapa, musika errebelde hori, gaztelaniaz egitea», argudiatu du Norzzone donostiarrak.<sup>6</sup> Hertzainak eta Zarama taldeen sorreran punkarekiko zegoen oinarrizko ideia bera. Gazteak izanik rap musika entzuten dutenak, begi-bistakoa da euskarazko rap eszena sendo bat edukitzeak ikuspegi soziolinguistiko batetik izan dezakeen garrantzia. Hala uste du Erik Ditzarri antropologoak ere, harentzat rapa «euskararen normalizazioaren termometro ere bada».<sup>7</sup>

Euskal gizartean mugimendu feministak hartu duen indarra ere islatu da musikan. Emakumeen parte-hartzea eta ikusgarritasuna sustatzeko diskurtsoek fruituak eman dituzte, gero eta gehiago dira agertokietara abestera edo instrumentu bat jotzera igotzen diren emakumeak, neska gazteak musikaren bidez ahalduntzeko ekimen ugari jarri dira martxan, eta emakume erreferenteetan zegoen defizita gainditzen hasi da. Anari, Aiora Renteria (Zea Mays), Maite Arroitauregi *Mur-sego*, Miren Narbaiza (Napoka Iria, MICE), Zuriñe Hidalgo (Hesian), Ines Osinaga (Gose) edota Izaro dira adibideetako batzuk. Zorionez, honen antzeko liburu bat gaur egun egin nahiko balu inork, ezingo luke emakume ahotsik jaso gabe argitaratu.

Mugimendu feministatik ere etorri da neurri handi batean dantzaren kulturaren aldarrikapena eta normalizazioa, «dantzatu ezin banaiz ez da nire iraultza» bezalako leloen bidez –emakumeak kontzertuetako lehen lerroetatik baztertzen dituen gizonezkoen dantza egiteko modu oldarkorra salatzeke–. Dantza ez da jada hedonismoarekin soilik edota apatia eta desmobilizazio politikoarekin lotzen, eta disko jartzaileen presentzia

---

<sup>6</sup> [www.badok.eus/elkarrizketak/euskaraz-jario-librean](http://www.badok.eus/elkarrizketak/euskaraz-jario-librean) (2014-10-17).

<sup>7</sup> Euskal raparen hausnarketa antropologiko historikoaren hazia (*Jakin* aldizkaria, 232. zenbakia, 2019).



normalizatzen ari da gaztetxe, txosna edota euskararen aldeko jaietan. Halaber, elektronika guztiz integratu da euskarazko pop-rock garaikidean, eta orain ez da tabu agertoki gainean sintetizadoreak, sanplerrak, erritmo kutxak eta bestelako tresneria erabiltzea.

Azkenik, hainbat musikaririk berritasuna ekarri diote kantugilearen figura tradizionalari. Hainbat ezaugarri komun dituen bakarlarik multzo berria agertu da plazan, ortodoxiari ihesi egiten diona. Formazio akademikoa izanik (biolontxelo, biolina, tronpeta, gitarra... nork berea) sorkuntzan jarrera esperimentala, apurtzailea, arriskuzalea eta jolastia erakustek lo-tzen ditu Maite Arroita Jauregi *Mursego*, Iban Urizar *Amorante*, Joseba Irazoki, Maite Larburu edota Ibon RG.

Pako Aristiren liburu honek zabaldu zuen euskal kantagintzari buruzko kazetaritza lanen bidea. Erreferentzia ezin bestekoa, ia bakarra, izan da urteetan musikazale zein kazetari-ontzat. Geroztik etorri dira beste batzuk, nahi genituzkeenak baino gutxiago, baina sarrera honetako oin-oharretan azaldu-takoez gain aipatzekoak dira, gaian sakontzeko ahaleginak emandako fruituarengatik, *Entzun!* aldizkariak argitaratutako *Aho bete doinu* elkarrizketa-liburuen trilogia, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen *Bosgarren haria* biografia bilduma (Itoiz, Jotakie eta Bap!! taldeenak, besteak beste), Elena Lopez Agirre-ren *Hertzainak, la confesión radical, Del txistu a la telecaster* eta *Historia del rock vasco* liburuak, Peio Etxeberri-Aintxart eta Colette Larrabururen *Euskal rock'n'roll. Histoire du rock basque*, Josu Larrinagaren *Euskal musika kosmikoak*, Alberto Irazuren *Rocka puntua!*, Juan Gorostidiren *Lau kantari (Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal eta Ruper Ordorika)*, eta Gotzon Barandiaranen *Hitzen abairea*.

# Euskal Kantagintza berria

1961-1985

*Lan hau egiteko, puzzle hau osatzeko bere laguntza handia edo txikia, baina beti estimagarria eskaini didaten guztiei. Zuek gabe, bakarrik, ez nituzke bost orri ere idatziko.*

*Urrestillan liburuaz kezkatu diren lagun eta etxekoei.*

*Eta batez ere Volkswagena hain erraz utzi zigun Lasarteko mekanikoari. Pertsona ona dela frogatu du.*

## SARRERA

Uztaritzeko kanposantua Baionatik datorren bidearen eskuinaldera hedatzen da. Ondoan, zerrategi bat dago, ezin nahastuzkoa da txirbilaren usain pastosoak, eta antiojoak dituen gizontxo zaharrak begiraten gaituenean, agur lotsati bat botatzen diogu, betiere toki batean kanpotarrak garela sentitzeak ematen duen zalantzarekin. Behiala beltza izaniko ate barrote herdoilduak gordetzen du kanposantuko sarrera. Erdi irekia dago. Barruan andre bat hilobi ezagunen bati begira dago, ezkerraldean. Guk bilatu nahi duguna beste aldean dago, eskuinean, sarreratik zazpi metrora. Berehala egokitzen zaigu gure bidaiaren helburua markatzen duen izena. Horrela dio:

Michel Labeguerie  
medikua  
senatur eta Kanboko  
auzapeza  
1921 1980

Ez du esaten kantaria zenik, baina berak eman zion Euskal Kantagintza Berriari hasiera. Bere garaiko estilo tradizionala

erabat hautsiz, disko txiki bat atera zuen 1961ean, berak sortutako kanta gitarra soil batekin abestuz, *Gure gatua Pitxitxi* edo *Gure astoa balaam* adibidez, eta hori izan zen kantuak sortzeko, kantua ulertzeko, abesteko modu berri baten hasiera, euskal kantagintza berriaren hasiera. Abeslari guztiak bat datoz honekin, hala esan zigun Anje Duhaldek Uztaritzeko Aranburua bere etxean hizketan egon ginenean: «Bera izan zen euskal kanta berria hasi zuena, askotan izan naiz bere etxean. Bera mito bat zen guretzat, eta Iparraldean gehiago, zeren senaturra baitzen, herri gizon ospetsua. Gogoratzen naiz gizon atsegina zela, karisma handia zuena, tartean bere gogortasunak izaten bazituen ere». 1964an Mikel Laboak bere lehen diskoa atera zuen, hortik aurrera Ez Dok Amairu sortuko zen, kantariak ugaltu egingo ziren, eta gizarte guztira zabalduko zen horien oihartzuna. Mikel Laboak Labeguerieren lehenengo diskoaz aitortzen duenez, «une hartan oraindik nahiko gogorra zen frankismoaren egoera, eta Labeguerieren lehen diskoak inpaktu handia izan zuen jendearengan *Aurtxo, aurtxo!*, *Gu gira Euskadiko gaztedi berria...* kanta horiek inpaktu handia izan zuten hemen, eta asko zabaldu zen disko hori. Guri ere egin zigun zirrara, lehenengoa izan zen gitarra batekin kantatzen hasi zena».

Baina bakarzaleak dira hilobi guztiak eta agudo uzten dugu Uztaritzeko kanposantua. Andrearen begiratu zuhailak ez du ezer ikusten, urteek kendutako zoriona hobeto gogoratzeko, pentsatzen dut, eskuetan daramadan karpeta lilan horren oharrik idatzi gabe.

Zerua urdin arrea ageri da Volkswagen zuriaren barnetik begiratzen dugunean, baina iraila ez da euri hila izan ohi, ez dik euririk egingo, Leonard, esaten diot ene lagunari, motorra piztu eta Uztaritzeko kafe batera abiatzen garenean. Irailak ez du sekulan zehaztu uda izan nahi duen ala udazkena, horregatik, artean eguzkiak erretzen duenean hostoak erortzen

ikusten dira, edo mantarik gabe egin daiteke lo, publizitatean neguko moda hasten denean.

Leonardek ez zuen hasieran bidaia hau egin nahi, baina kantariez hitz egin nionean animatu egin zen. Askotan aipatu izan dit abestien letrak eskuz kopiatzen zituenekoa, edo Pausutik Iparraldera pasatu eskurtsioan eta ikurrinak atera eta kantuka hasten ziren garaia, Hegoaldean oraindik debekatua baitzegoen ikurrina ateratzea eta abesten jardutea. Horregatik eman zidan baiezkua, kantariak ezagutzeko aukeraren aurrean.

Gaur hasi dugu bidaia. Euskal Herria zeharkatuko dugu zortzi egunean, kantariak edo taldeak sortu diren herriak bisitatuz. Atzo, Lasarteko auto-tailer batera joan ginen, auto bat erosi nahi genuela esanez. Leonardek atrebentzia izugarria dauka gezurretan. Volkswagen zuri bat gustatu zitzaigun, M-20034 matrikula.

—Utziko diguzu Volkswagena probatzen egun batzuetan? —galdetu zion Leonardek.

Konfiantza ematen genion nonbait mekanikoari, baina askotxo iruditu zitzaion.

—Bi egunetan utziko dizuet —erantzun zuen.

—Kotxe zaharrak denbora gehiago behar du, gizona —esan zion Leonardek. Utziguzu zortzi egunean, eta gero egingo ditugu kontuak. Ondo badabil, saldua daukazu.

—Zortzi egun? Eta gero bazterra jota aurkituko dut! Ez, ez.

Leonardek eta biok elkarri begiratu genion, eta «orduan, agur» esanda alde egiten hasi ginen. Ez genuen atzera begiratu, baina mekanikoaren oihu batek geldiarazi gintuen.

—Tira, utzizkidazue hogeita mila pezeta berme, eta eraman kotxea. Zortzigarren egunean egingo ditugu papeleoak.

—Datuak utziko dizkizugu; zerbait gertatzen bada, bada-kizu zein denuntziatu, baina hogeita mila pezeta, ezta pentsatu ere!

Mekanikoak marmarka eraso zion. Eskuak garbitu zituen gure datuak hartzeko, autoko giltzak atera zituen kaxoi bate-tik eta penaz bezala begiratu zigun Volkswagenean alde egiten ari ginela.

Motorrez ondo dabil autoa. Hasieran estropezu egin dugu ate azpiko hegal zabalekin autotik jaisterakoan, baina kanpo-tik begiratuta, dotore egiten diote hegal horiek. Pantera lar-ruaren imitazioak janzten ditu eserlekuak, eta gaur goizean abiatu aurretik arrosazko perfumea astindu badugu ere, ez zaio kotxe zaharren usaina joan.

«Frantses hiztegia ahaztu zaiguk», esan dit Leonardek. «Ba, Elkanok ez zekien erdara besterik munduari buelta eman zionean», erantzun diot asuntoagatik kezka handirik hartu gabe, baina gasolindegian andreak ez zigun ulertzen zenbat li-tro nahi genuen, behatzekin adierazi behar izan diogu eta pe-zetak genituenez, kalkuluak egiten hasi garenean, ez zitzaigun zenbaki bera ateratzen. Hogei minutu igaro ondoren amaitu dugu gasolina botatzea eta Uztaritzeko *Café* bateko atsedena dastatu aurretik diru aldaketa egin dugu eta français-espagnol hiztegitxo bat erosi. Tabernako koñakak bidaia bat hasi aurreko emozioa eskaini digu, Leonardi ere bai, nik uste, nahiz eta ni baino hogeita bost urte zaharragoa den. Urteek ilusioa kentzen dute, ezarian, baina abenturak, nahiz ttipi nahiz handi, beti du bere xarma. «Konpainiarekin bidaiatzea ez da bidaiatzea, hor-rek bidaiatzeak duen xarmarik intimoena ezabatzen baitu: bakardadea», esan zuen Unamunok. Baina lagun on batekin joatea ez da gauza bera, nahi baduzu hitz egin daiteke, bestela isilik egon eta pentsatu.

Curvoisierrak ordaindu eta Mixel Labeguerieren semea, Eneko bisitatzera goaz. Uztaritzetik gertu bizi da, aldapa bat igota. Oilategiek inguratzen dute bere etxea. Txitak saltzen ditu. Atarira heltzen garenean, usain goxoa datorkigu sukal-detik. Oilaskoa erretzen ari da ziurren Eneko. Deiadar egin

dugu, eta barrutik norbaitek erantzun du. Laster jakingo dugu usainaren jatorria. Uztaritzetik Enekoren etxera dagoen bide laburrean pentsatzen etorri naiz. Hainbeste anekdota eta pasadizo entzun ditut gure kantariez, Lourdes Iriondok kantak erdaraz egin eta Joxe Mari Iriondok itzultzen omen zizkion euskarara, Lete Oiartzungo korutik bidali egin zutela, Imanolek espainolista fama izan eta ez zuela inork berarekin kantatu nahi, Joxean Artzek Vespa batean korritu zuela Europa osoa, Txomin Artolak sehaskan hizketan hasi aurretik ekin ziola kantuari, Benito Lertxundik errepidean, euripean, autoa izorrraturik zegoela egin omen zuen *Nere herriko neskatxa maite*, edo Ruperrek Murtzian, soldaduskan pentsatu zuela kantuan hastea... Bidaian jakingo dugu kontu horien guztien egia edo gezurra, eta batez ere espero dut kantariak ezagutzea, konfiantzaz ezagutzea gainera. Pelikula bat ikustea bezala izango da, kantariak, jaialdiak, urteen joana, haserreak, diskoak, batzuetan denboraren inbutuan murgilduko gara. Ez Dok Amairu Bartzelonara joan zen egunetara hurbilduko gara, edo Niko Etxart Parisetik Zuberora melena luzearekin etorri zen egunetara, jendea gaizki esaka jarriz, edo Itoizen lehen jaialdia ikusiko dugu, Saturraraneko «Venecia» diskotekan, eta Luis Mariano, Mocedades edo Patxi Andion euskaraz kantatzen entzungo ditugu, apika.

Eneko ateratzen zaigu, sartzeko esanez. Oilaskoa laster egongo dela eta mahaietan esertzen gara. Laborari etxea da Enekorena, sukaldeak ez du hornidura askorik. Armairu handia, kozina, egutegi bi, atzoko egunkaria eta oilaskoa, ilarrak eta saltsa zoragarria. Txita saltzeak abantaila hauek ditu.



KRISEILU TXIKI BAT:  
MIXEL LABEGUERIE

Bidaiaren estreinako eguna lainotsua atera da. Mendiak ganduak jaten ditu. Badaezpada, guardasola. Parranda gutxiago egiteko esaten diot Leonardi, begi zuloak egiten ari zaizkiola eta. Ez dit ezer erantzun, argazki makinaren karretea segurutzen ari baita. Amaitzen duenean, Volkswagena martxan jartzen du eta semaforoaren ondoko kartelean Irun-Francia bilatzen dugu. Ezkerrera. Ia ehun kilometro Uztaritzera ailegatzeko, eta bitartean, euskal kantagintzaren gauean murgilduko gara. Mixel Labeguerieren kriseilu ttipia aurkitu arte gau luze bat baita kantagintzaren historia.

Frankismoak pertsianak itxi zituen eta ilunpean gelditu zen Espainia nahiz Euskal Herria. «*Longa noite de pedra*» deitzen da Galizian gerra ondorena. Víctor Claudín-ek, bere *Canción de autor en España* liburuan, honela deskribatzen ditu urte horiek:

«Si en los años veinte nos imaginamos, tal vez no del todo acertadamente, a nuestros abuelos o padres bailando alegres chotis, en los años cuarenta España era un país donde no se cantaba, viviéndose tan solo la división entre vencedores y vencidos. Un pasado sistemáticamente enterrado, aplastado, inexistente,

que dejaba su lugar a la unipersonal, exclusiva, dogmática visión caprichosa del mundo que implantó la dictadura del viejo general».

40ko hamarkadan frankismoak ateak ixten ditu, orduan gerran ari ziren nazioengandik aldendu egiten da eta itxitura horrek urte asko iraungo du. Frankismoak Espainia konkistatu du armen bidez, eta horren ondoren, propaganda, kultura, prentsa, erlijioaren bidez bereganatuko ditu jendearen kontzientziak eta hori lortzen ez duenean, protestak, kontrako jarrerak isilaraztea izango da helburua. Kalean, edo zinean, edo eskolan himnoa entzuten denean, derrigorrezkoa da zutik jaritzea, besoa altxatzea eta agurra egitea.

«En los años cuarenta la radio, la enseñanza, los cantantes callejeros y rurales, la prensa, la literatura de consumo se apresuraron a despolitizar la conciencia social».

Manuel Vázquez Montalbán-en hitzak dira. Armen bidez lortu zena, kultura deskontzientziazio baten bidez baieztatu behar zen. Testigantza hauek horren sintomak dira.

Espainia mailan egoera hain hutsala bada, Euskal Herrira etorriarik egoera tristea, negargarria, esteiaria da. Asfixia politikoaren ondorioak dira. Frankismoaren zapalketak bi bide hartu zituen. Bata, gerra galdu zutenen aurka; bestea, Estatuko minorien aurka, hizkuntza desberdinen aurka, kultura berezia zuten herrien kontra... Eta Euskal Herriak biak pairatu zituen, gerran galtzaile suertatzeaz at, kultura eta hizkuntza bereziaren jabe zelako. Honela gogoratzen ditu Mikel Laboak urte horiek:

«Garai hartako giroa ez zen oso aberatsa. Kalean eskua altxatu egin behar zen desfilea zegoenean. *Hable usted cristiano* eta gauza hauek oso ezagunak ziren. Oso zaila zen euskara entzutea. Amak telefonoz hitz egiten zuen Lekeitioko lagunekin eta telefonistak erdaraz egiteko esaten zion. Donostiako Parte Zaharrean bizi ginen, eta jendeak gauero soziedadera afaltzera joateko ohitura zeukan, tabernak ere oso berandu ixten ziren

eta kaleetan euskal kantak entzuten ziren, *Boga Boga* eta hola-koak».

Euskara atzerakada handia ari da jasaten. Gizartearen alor guztietatik desagertu egiten da, eta familia eta lagunartera baztertzen. Mikel Laboak berak ere galdu egiten du.

«Zazpi urtera arte euskaraz bakarrik hitz egiten nuen, eta, hortik aurrera, euskara galtzen hasten naiz... familia askotan gertatu da. Debekatua zegoen, bai kalean bai eskoletan, baina nik uste etxean ere badagoela errua. Amak dena euskaraz egiten zuen eta aita batzutan erdarara pasatzen zen. Hiriburuetan gertatu zen hori, herri txikietan ez. Ailegatu zen momentu bat, aitak esaten ziguna, bueno, euskaraz egiten baduzue bost pezeta, garai hartan asko zen, baina isilik egoten ginen».

Irratiak ere gaur egunean xeblebreak eta barregarriak iruditzen zaizkigun gauza franko ematen zuen, baina orduan ez zen bromarik. Urte haietako kronika bat:

«En Torrejón de Ardoz se procede a la exhumación de los cadáveres de las víctimas del terror rojo y del ateísmo soviético inmoladas bárbaramente por pelotones de asesinos y asalariados de Moscú. La elocuencia del documento fotográfico permite darnos una dolorosa pero necesaria y aleccionadora idea de cuales eran los ideales y los procedimientos de los intelectuales y otras cuadrillas del llamado Frente Popular».

Uda guztietan, kanta bat «exitoa» izaten zen eta horiek irratietan, jaietan, toki guztietan entzuten ziren. 1946an, adibidez, *La vaca lechera* izan zen sariduna. Laboak gogoratzen ditu garai hartako kanta batzuk. Hona horietako baten letra:

«Adiós, amigas mías, me voy a retirar./ –Espérate un poquito que vamos a jugar./ –Por hoy me es imposible. –¿Pues que tienes que hacer?/ –Lo que mi buena madre se sirva disponer,/ me ha dicho que en mi casa he de estar a las seis,/ y el motivo las niñas no han de saber cual es,/ a casa me voy al punto que es mi obligación,/ adiós amigas mías, adiós, adiós, adiós».

Antonio Machín asko entzuten zen, eta maitasun kanta horterak erabat. «*Tengo que hacer un rosario, / con tus dientes de marfil, / para que pueda besarlo, / cuando este lejos de ti*». Luis Mariano, Antonio Molina edo Antonio Maya kantari famatuak dira. Horien doinuak leunak, sarkorrak dira, eta kantatzeko grazia pixka bat edukitzea nahikoa zitzairen bazter guztietan azaltzeko. Luis Marianok ahots ona zeukan, baina ez zeukan eskrupulorik eta edozer gauza abesten zuen. Antonio Machín-en ahotsa kurtsia zen, baina kubatar maitagarria zen eta maite-minduek dantza egiten zuten, negar egiten zuten «*no quiero arrepentirme después, de lo que pudo haber sido y no fue*» abesten zue-nean.

Laboak kanta bat gogoratzen du barrez:

«Al ikuilu ya no vuelve mi buen astua, no vuelve no, / ya no brinca de poxa cuando cabeza tocar alguno, / arrayua, suerte txarra con tripako miña poner me hizo, / bihotzeko asto gaxua, malkos tiraba cuando murió. / Y ahora hace dos años, juxtu juxtuak ayer cumplió, / que las tripako miñas al pobre burro le agarró, / con una arrantza fuerte una noche me despertó, / bihotzeko asto gaxua, malkos tiraba cuando murió».

Frankismoak ondoko ezaugarri hauek dauzka:

—Minorien hizkuntza eta kultura zapaltzen du.

—Hutsune politikoa maila guztietan.

—Kanpoko ideologia, mugimendu eta kulturgintzari bizkarra emanda bizi da.

—Ideologia bakarra ezartzen du gizartean.

—Belaunaldi gazteak esnatzen ari dira, kontzientziazio bide makal batean abiatzen dira, intuitiboki askotan.

—Musika mailan, Fernando González Lucinik deitzen duen «*nacional-flamenquismoa*» ezartzen da. Munduarentzat, Espainia guztian flamenkoa egiten da.

1959an Kanta Berria sortzen da Espainian, oraindik lotsati. Europarekiko harremanak hedatzen doaz eta kanpotik

gauzak ailegatzten hasten dira, modak, kantak, eta abar. Disko industria ere zabaltzen hasten da, eta hau garrantzitsua da, Ángel Casasen ahotan:

«El disco, que comenzaba como lacayo técnico al servicio de músicos y cantantes, al servicio del arte sonoro en definitiva, acabaría por imponer su ley industrial y comercial erigiéndose en auténtico protagonista del tinglado de la música. Por su culpa, compositores y directores modificarían su obra y se someterían a la económica esclavitud. Por su culpa los cantantes cambiarían su estilo o traicionarían sus propias ideas».

1957-1959 urte bitartekoak dira unibertitate mailako lehen manifestazioak, turismoko boomak anitz turista erakartzen du Espainiara, 1958an greba gogorrek antolatzen dira Asturiasen, Katalunian eta Euskal Herrian, Seiscientosarekin autoak gehien-goaren eskuetan jartzen dira, TVE inauguratzen da eta diskoe-txe berriak sortzen dira: Fonogram, Hispavox, Belter, Vergara, Discophon. Garaiko joerarekin hautsi eta lehen kanta desberdinak egiten dituztenak Dúo Dinámico eta José Guardiola dira. Dúo Dinámicok musika ingelesa moldatzen zuen erdarara, eta garai hartan berria izan zen bolero eta musika motelekin hautsi eta rockaren antzeko erritmoak erabiltzen hasten dira. «José Guardiola, el Frank Sinatra español» irakurtzen da garaiko kar-teletan. Ingelesez, frantsesez edo italieraz abesten ziren exitoak katalanez eta gaztelaniaz ematen hasten da Guardiola, 1957an katalanez, hango «Nova Cançó» sortu baino lehenago.

1960an, irratiak Bob Dylanen kantak jartzen hasten dira; 1963an, Beatlesak sortzen dira eta txima luzeak eta gitarra elek-trikoak jartzen dira modan. Dúo Dinámico Espainia mailan, Johnny Hallyday Frantzian, Tommy Steele Ingalaterran, Adriano Celentano Italian, Raimon Katalunian edo Mixel La-beguerie eta Lourdes Iriondo Euskal Herrian, guztiak dira kanta berriaren hasiera, bakoitzaren kalitatea norbere herriko egoeran kokatu behar delarik.

Kanta berriak hiru eragin nagusi bereganatzen ditu, nahiz Espainian nahiz Euskal Herrian, hiru musika korronte sartzen dira genienik kanta berria sortzen ari zen zirkulu txiki eta gazteetan, hiru musika mota horien umea izango da kanta berria:

- Kanta frantsesa: gerra ondoren sortu zen kanta frantsesa (Brassens, Léo Ferré, Jean Ferrat edo Jacques Brel).
- Ipar Ameriketako folka (Bob Dylan, Pete Seeger edo Joan Baez).
- Hego Ameriketako kanta berria eta konprometitua (Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, Víctor Jara).

Euskal kantari askorengan nabariak dira eragin hauek.

Disko industriaren aurrerakadak kantaren zentzua aldatzen du. Kantua produktu bat bihurtzen da, kontsumo gai beharrezko bat. 1930-1940 urte bitartean zinea izan zen gizarteko fenomenorik garrantzitsuen eta ezagunena, gero telebista, eta gaur egun, diskoak bide hori darama. *Fiebre del sábado noche* diskotik, 32 milioi saldu dira. 1979an Enrique eta Anak disko bat atera zuten, eta Hispavox diskoetxeak 24 milioi bota zituen publizitatean. Sei hilabeterako, 300 milioi irabazi zituzten. Dinamika hau noski kanta komertzialari atxiki behar zaio, baina honek zera erakusten du: kantak garai bateko espresio eta komunikazio bidea izateari utzi diola, beste guztiak ezabatzen dituen helburu bat finkatuz, hau da, ahalik eta disko gehien saltzea.

Kanta Berrien mugimendua espontaneoki sortzen da gehienetan eta bakarkako lanaren ondorioz. Komertziotik kanpo doa bere bidea. Kanta Berriak joera etiko eta estetiko berri bat dakar eta bi esparru lantzen ditu: batetik, folklorea berpizten du, eta bestetik, egungo kanta herrikoiak egiten ditu. Kantaria gizarte berri baten ametsa da jendearentzat eta kantak esperantzari hitz berriak asmatzea besterik ez du egin.

Euskal Herrian, 1964an sortzen da Kanta Berria, baina 60an hasten da pertsiara irekitzen, eguzkiak eguna zeharkatzen

duen moteltasunarekin bada ere. 1957an Txillardegik *Letuariaren egunkari ezkutua* argitaratzen du, nobela existentzialista, lehen euskal nobela modernoa.

1959an sortzen da ETA, ikastolak ere martxan hasten dira, Gabriel Arestiri urte berean saritzen diote *Maldan behera* eta hurrengo urtean argitaratzen du. 1964koa da *Harri eta herri*. 1963an, *Quousque tandem* kaleratzen du Oteizak. Musikkalki zegoen tradizio bakarra kantutegiena zen, R.M. Azkue eta Aita Donostiarenak. Nemesio Etxanizek 1951n atera zuen *Kanta-kantari* bilduma. Charles Bordesek egina zuen ikerketa bat euskal kanta zaharrei buruzkoa, Parisen, 1899an argitaratua. Besteak beste, Wentworth Webster-ek, Rordney Gallop-ek eta Philippe Veyrin-ek famatu izan dute gure kantutegia. Donostian Koro Easok kontzertuak ematen ditu, eta euskaltzaleak joaten dira kontzertu horietara. Kanta zaharrak abesten zituzten. Schola Cantorum-ek Juan Urteagarekin *Estampas de Navidad, Estampas de la Pasión* eta horrelakoak ematen zituen, «oso ezaguna, eta atsegingarriak» dio Laboak. «Kiliki» dantza taldea antolatu zen, «oso talde ona zen, Eresoinkako jende asko zegoen».

—Zer zen Eresoinka, Mikel?

—Bestaldean osatu zen talde bat, errefuxiatuekin. Dantza taldea eta koroa zen. Parisen egon ziren, *château* batean entseguak egiten, eta hortik emanaldietara joaten ziren. Koroa oso ona zen, gero Koro Easora joan ziren batzuk, Luis Mariano ere Eresoinkan ibili zen. Euskal Gobernuaren babespean ibiltzen ziren Ingalaterran, Belgikan... Fama hartu zuten. Zuzendaria Gabriel Olaizola izan zen. Joxe Migel Saseta, nire koinatua, Saseta komandantearen anaia, hor ibili zen.

Ikastolak sortzen dira. Nemesio Etxanizen *Kanta-kantari* garrantzitsua da. Letek, *Garaia* aldizkarian idatzi zuen idazlan batean, dimentsio zabala ematen zion Etxanizen lanari. Kantutegia argitaratu zuenean, ez zuen lan sortzaile horrek merezi

zuen atentzio eta abegirik jaso. «Baina –Gorka Knörren hitzak– horren lana ez zen alferrikakoa gertatu, handik urte batzuetara, beste batzuek hartu baitzioten segida haren ideiarri». Philippe Navarrek bere *Essor ou déclin de la chanson Basque?* liburuan argitzen du zein zen Etxanizen helburua: «Stimuler poètes et compositeurs basques pour un urgent travail créateur». Kanpotik zetorren musika exotikoa eta erritmo gogorrekoaren aurrean, Etxanizek euskara eta ohitura zaharren seriotasunaren eta sakontasunaren alde egiten du apustua.

Halere, Etxaniz baztertua egon zen, bidegabekeria handia, bide batez esanda, Ez Dok Amairukoek eta ondorengo kantariak onartu eta bere kalitatearen maila goian zegoela garbi utzi zuten arte. Kantariak berreskuratu dute kantagile hau. Halere, gure kantu zaharrak ez zaizkio nahiko iruditzen Etxanizi, berak erakutsi nahi duena da euskara kantu modernoetan ondo egokitzen dela. Etxepare berpiztua dugu Etxaniz. Gure kantu zaharrak gaztetu nahi ditu, gaur egunerako egokiagoak diren hitzak asmatuz. Testu erotiko onak eskatzen ditu, nahiz sortuak nahiz ezkutuan daudenak argitara ekarriz, «ez gaitezen moralistegiak edo euskaldunistegiak izan» dio Etxanizek. Kantu zahar eta berriak, erritmo klasiko eta exotikoak nahasten ditu bere kantutegian. Adibideak: *Ana, hauxe da lana* pasodoblea da, *Maitearen ilobi gañean* habanera bat, *Ez niñan uste* tangoa, *Iru alaba ditut iru* rumba, eta *Oi Loreti, aingeru txuri* Schubert-en *Serenade* doinuarekin egina dago. Etxanizek, 1951ko bere kantutegiarekin, ondoren etorriko zen Euskal Kantagintza Berriaren oinarriak jarri zituen.

Ez dakit Mixel Labegueriek eta Nemesio Etxanizek elkar eza-gutu zuten, baina, Manex Pagolaren ustez, Etxanizek izan zuen eragina Labeguerierengan. «Labegueriek hartu ditu Lafitterengandik influentzia asko –esaten digu Baionako Euskal Museoa–, eta niri Lafittek eman zidan liburu bat, *Kanta-kantari*, eta



seguru naiz liburu horrek influentzia eduki duela Labeguerierengan».

Garai hartan Iparraldea deserta bat zen, horregatik fenomeno harrigarria de Mixel Labeguerie. Manex Pagolak honela gogoratzen ditu urte haiek:

«Lehen, ez genekien Euskal Herriak “bestaldea” zuenik ere. Uztaritzen, espainolezko kurtso batean ikusi nuen “*Provincias Vascongadas*” zirela, eta irakasleari galdetu nion, aizu, beste aldean, Espainian, ba al da Euskal Herririk? Bai, erantzun zidan, oso aberatsak dira, gauza asko dute, baina isilik, kurtsoa jarraitu behar dugu. Astoak ziren. Gu sagarrondoak ginen, eman dezagun, eta esaten ziguten, zuek udareak izan behar duzue, sagarrak behar zuen udarea izan. *Enbata* sortu zen gero. *Alderdi* aldizkaria bazen Parisen ateratzen zutena, horiekin hasi ginen ikurrina ezagutzen, euskaldunak zenbat ginen jakiten, hutsetik hasi ginen. Apaiz bat bagenuen, beti esaten zigun isilean, euskaldunak bestaldean badira, asko dira, eta Franco hiltzen denean, independentzia izango dute. Gaur egun, hemen, gauzak erroak egiten hasi dira, eta ontsa gainera. 1965ean publikoki abertzale agertzen zirenak ziren beharbada berrehun, orain hamar milatik gora dira, numerikoki gauzak aurrera doaz».

—Kantariak zein neurritan lagundu dute prozesu horretan?

—Garrantzi handia izan dute, euskal kantagintzak erakutsi du, zeruan izarrak bezala, bihar eguraldi ona izanen dela gure kulturarentzat. Kantua asko popularizatzen da, diskoen bidez asko zabaltzen da. Uste dut kantuak egin dituzten askok eta abestu duten askok pentsatzen zutela periodikoetan eta liburuetan emana zen mezu bat, berritzearen mezua, hobeki emana zela kantuarekin, kantuak bildu egiten du jendea, eta ez da bakarka mintzo liburu bat bezala, kantua publikoki ematen da, eta kantaldi onak ematen badira, emaitza onak lortzen dira publikoaren.

## Labeguerieren Kriseilua

60ko hamarkadan pertsianak irekitzen hasi dira, eta arrailduratik begiratzen digu Mixel Labegueriek, gitarra hartzen du, gaez egiten ditu kantak eta bi disko txiki botatzen dizkigu. Bere herentzia.

Fenomeno bitxia da gizon hau. 1961ean atera zuen lehen disko txikia. Garai hartan, gerra aurretik sortu zenaz bizi ginen. Luis Iriondok *Jakinen* dioenez, «Gerra aurreko Usandizaga, Guridi, Sorozabal eta abarren azentu modernoagoak; opera kantarien interpretatze molde enfatikoak, ezkontza eta oturuntzetan okasioko tenorinoaren luzimendurakoak; eta *Belle Époque*ari zegokion polifonismo akademiko bat, koru eta otxoteetan amai-gabe eta beti berdin errepikatzen zena: hori zen, gutxi gorabehera, gure kantagintzak garai hartan eskaini zezakeena».

Labeguerie Kanboko medikua zen, alkate eta gero Parisen senatari ere bai. Baina medikuntza zen bere lanbidea, eta tar-teetan beti ibiltzen zen kantari. Hamabietatik ordu biak arte izaten zuen bazkaltzeko, eta txokoan jarri gitarrarekin eta beti abesten eta kantak eskribitzen gogoratzen du Eneko bere semeak.

Batzuetan goizeko ordu bietan etorria sentitu eta kantak egiten hasten zen. Uztaritzen jaio zen Labeguerie. Gero, Kanbora joan zen bizitzera. Ez zuen kanta asko egin. Grabatu zortzi, baina denak ez dira berak eginak. Musika berak egiten zuen, baina hitzak askotan Piarres Larzabalekin batera egiten zituen. Baditu abesti batzuk diskoetan emanak izan ez direnak. Enekok pentsatzen du aurki grabatuko duen disko batean aitaren kanta bat sartzea.

—Kotxea ondo zebilek —esan dit Leonardek errebuelta batetatik Enekoren etxea ikusi dugunean—: asko tiratzen zioke eta kanbio leun-leunak ditik. Pena ematen zidak mekaniko giza-joari egin behar diogun alukeria egiteak.



Mixel Labegueriek ireki zizkion leihoak euskal kantagintzari.

—Dirurik ezak erakusten dik bizitzen —erantzun diot—. Hori izango duk Eneko.

Etxe aurrean dago.

—Eneko?

—Bai.

—Nirekin hitz egin zenuen telefonoz —esaten diot—. Hau Leonard da. Eskua ematen diogu biok.

—Pasa —esaten digu—. Oilaskoa prest egonen da.

Labeguerieren herentzia zortzi kanta dira: *Bakearen urtxoa; Gu gira Euskadiko; Aita, zer egin duzu; Dilin Dalan; Haurtxo, haurtxoa; Gure astoa Balaam; Gure gatua Pitxitxi* eta *Primaderako liliak*, zeina autobiografikoa den. Datu honek interes berezia dauka, biografiarik onena norberak idatzitakoa baita.

Labegueriek haurdun utzi zuen emakume bat. Horregatik ezkontzera behartuak izan ziren, baina umea hilik jaio zen. Pasadizo hori kontatzen du kantan. Gero emaztea ere hil egin zitzaion, eta beste bat hartu zuen.

Primaderako liliak  
goizik ziren loratuak.  
Urte hartan gertatu zen,  
Pazko Erramu baino lehen.

Gaituzte ezkontarazi,  
maite ninduzun hain guti;  
ezkontarazi gaituzte,  
ez zintudalarik maite.

Nunbait balinbada zeru,  
gure haurra da aingeru.  
Aingeru zeruan baina,  
umerik ez ohantzean.

Bihotza hotzez kaskaran,  
nago geroaren mentura.  
Etor bedi primadera,  
kanpoak diton berriz lora.

Xoriak amodiotan  
berriz hastean bertsotan.  
Leioa dut idekiko,  
amodioa da sartuko.

Gaituzte ezkontarazi,  
elgarrekin behar bizi;  
ezkontarazi gaituzte,  
behar dugu elkar maite.

Labeguerieren kanta guztiak jendearengan sartzen joan dira.

—Gaur egun ere ikusten diat Iparraldean —dio Enekok zigarreta liatu ondoren— bestaldeko errefuxiatuak *Gu gira Euskadiko* abesten, eta bi orduz igual abesten ditek hori, gustura.

—Nik lehenengo aldiz Zuberoan entzun nian kanta hori —esaten du Leonardek.

—Diskoak Ximun Haranen etxean grabatzen zitian. Ximun Haran pilotari ona izana da —esaten digu Enekok—, onetarikoa, eta magnetofono zahar batekin grabatzen ibiltzen zuan herrietan. Magnetofono horrekin grabatu zioan aitari ere; garai hartako, ez zegok gaizki grabazioa. Ikusten ditiat oraindik, etxean, Kanboko koruko hamar tipo, Ximun Haranen magnetofonoarekin, aitak *Gu gira Euskadiko* abesten, eta errepikazterakoan korukoek abesten zuten.

—Aitak kantatzen al zuen jaialdietan, Eneko?

—Denbora haietan ez zen gaur bezala, orduan ez zen kantaldirik. Kantaldiak ikastolekin sortu dira, ikastolek antolatzen zituzten dirua ateratzeko. Garai hartan, hemen,

Euskaltzaleen Biltzarra egiten zen, berak hor abesten zuen. Bertsolariak ere etortzen ziren. Biltzarreko lehendakaria (Louis) Dassance zen, oso ezaguna euskal gauzetan. Horrek utzi zuenean, gazteak etorri ziren, gure aita jarri zuten lehendakari, eta orduan hasi ziren lehen kantaldiak. Aitak bazkarietan kantatzen zuen, jaialdietan ez zuen sekula kantatu.

Labeguerie gizon polemikoa izan zen. Honela gogoratzen du Manex Pagolak:

«Labeguerie ez da erraza definitzeko. Gizon kuriozua zen, ahalmen asko zuen, gizon atsegina zen. Bestalde, haserre beltzak pasatzen zituen, jenio gogorra zeukan. Behin idatzi nuen Labegueriek eskuinarekin melodia bat jotzen zuela pianoan, eta ezkerrekin kasik kontrakoa jotzen zuela, harmonia zahar eta berri bat eginez. Kantagintzan biziki gauza onak egin ditu. Gaien aldetik atera du abertzale politika giroko kantu bat edo beste, irri egiteko kantak ere, hunki ez duen gaia beharbada sozial problema izan da. Doinu aldetik egin dituen gauzak loretxo polit batzuk dira. Labeguerie asko aipatzen da, abertzaleek egin baitiote fama hori. Momentu berean, bazegoen beste kantagile bat, Etxahun Irurikoa, baina doinu aldetik haren emaitza biziki klasikoa izan da. Labegueriek bazekien hori, baina, halere, doinu aldetik zerbait berria eta polita atera du. Labegueriek ekaia bazuen».

Labeguerieren diskoek azal gorria zuten. Iritzi hau dauka Letek:

«Izugarrizko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoia-  
ren estilo aldaketan, gitarra soilez lagunduriko kantak baitzi-  
ren, ahots partikular bezain apal eta arruntez kantaturikoak,  
molde komertzialei zegozkien amaneramendu eta sofistikazio  
guztietatik urruti».

Disko haiek ezkutuan pasatzen ziren bestaldera. Txomin Artolak gogoratzen du:

«1965ean, Mixel Labeguerie ezagutzen dut eta ikusten dut nolabait kantak euskaraz egiteko modua ere badagoela. Bestalde, disko haiek ekartzean, beldurrez ibiltzen ginen, oso kontrabando gaiztoa egiten genuela iruditzen zitzaigun, ez zen kafea edo Rémy Martin ekartzea, disko haiek azalean ikurrina zeukaten».

—Eneko, harreman onak al zenituen aitarekin?

—Politikoki kristoren problemak genituen. Aitak, Jakes Abeberryk eta Ximun Haranek Enbata sortu zuten. Aitak Enbata utzi eta diputatu egin zen. Uste dut huts egin zuela. Berak uste zuen mugimendu abertzaleak ezagutarazteko, talde politiko handi batean sartu behar zuela. Parisen, gaurko Centre Démocrate-ren sortzailea izan zen, bestaldean EAJ edo UCD bezala. Pentsatzen zuen hortik posible zuela zeozer egitea. Gero Abeberryk Enbata kristoren ostiakoak eman zizkion, traidore eta holakoak esanez, eta aitak utzi egin zuen Centre Démocrate.



Eneko Labegueriek gogoratzen ditu aitaren istilu politikoak.

Pantxoa eta Pellok diote:

«Diputatu presentatu zenean, abertzale gisa hitz egiten zuen, eta gero, diputatu egin zenean, pixka bat aldatu egin zen. Gogoratzen dugu, hamaika edo hamabi urte genituela, udalekuetara joaten ginenean, Mixel Labeguerie etortzen zen kantari. Gure lehenengo jaialdietara etortzen zen».

—Eneko, musikarik erakutsi al zizun?

—Gitarra bat zuen eta beti gitarra batekin konpontzen ginen. Jotzen dakidan gutia berarekin ikasia da, eta neure kasa ere.

—Berak zein oinarri musikala zeukan?

—Musika herrikoian zuen oinarria, zortzikoan eta horrela. Musika asko ezagutzen zuen. Bere amak musika egiten zuen, pianoa jotzen zuen. Aitak txistua ere jotzen zuen. Hura izan zen, pentsatzen dut, Iparraldeko lehen txistularia. Bordenen medikuntza ikasten zuen, eta han dantza talde bat egin zuen, eta gero txistua jotzen zuen hemengo herri batzuetan.

—Hortik aparte, noren eragina sumatzen zitzaion?

—Brassensen epoka zen, eta etxean Brassensen disko guztiak zeuden, asko maite zuen, eta Brassens bezala hasi zen kantak egiten.

—Nola hil zen?

—Toulouseko ospitale batean hil zen. Bost infartu izan zituen. Bihotza ireki eta operazio bat egin behar zioten. Posible zen bizirik irtetea edo ez. Bizirik irten izan balitz, posible zen gehiago ez jaikitzea, elbarri gelditzea. Egitea erabaki zuen, baina hil egin zen.

—*Nafarra, oi Nafarra* kanta ere oso ezaguna da, baina ez zuen berak grabatu.

—Hori honela gertatu zen. Gose greba egiten hasi ziren errefuxiatuak, eta nahi nuen gose grebara joan, baina aitarekin folloiak izan nituen eta ez nintzen joan, familiagatik. Orduan familia oso inportantea zen. Abesti bat egin nuen, nire lehen



abestia, eta aitak lagundu egin zidan, nik musika egin nuen eta letra biok, gose greban zeudenez egin genuen. Disko bat egin behar genuela esan zidan. Berak *Nafarra, oi Nafarra* egina zeukan, eta beste bi edo hiru kanta bazituen, eta esan zidan, hire abestiarekin eta nire hirurekin diskoa egingo diagu. Nik abestu nituen kantak. Hirugarren diskoa izan zen eta hor bukatu zen.

—Zergatik ez zuen disko gehiago atera?

—Lan asko zuelako, gero politika istiluak, eta zazpi urtean bihotzak bost infartu eman zizkion. Hirurogei urterekin hil zen.

Labeguerie Iparralde guztian aipatzen da, oso ezaguna izan zen. Diputatu sasoiari izan zuen beherakadarik gogorrena. Abertzaleen botoekin atera zen diputatu, baina Centre Démocrate-an sartzean haserretu egin zitzaizkion.

—Noski —esan dit Leonardek—, jendeak nahi zian euskaldun abertzale bezala egotea parlamentuan, baina berak esaten zian horrela ezin zuela ezer egin, eta talde batean sarturik posible zela. Bide hori hartu zian.

Labegueriek pertsiana artetik begiratu digu oraindik, sortzailea, polemikoa, jenio gogorrekoa, bizitzan istilu asko izandakoa, mitoa askorentzat, kriseilu bat guretzat. Hortik aurrera ezagutu izan du euskal kantak argia.

Uztaritzeko kaleetan argiak pizten ari dira. Eneko agurtu eta bere laborari etxean lagatzen dugu, liburua bidaliko diogula esanez oilaskoaren truke. Afari arina egin dugu. Entsalada eta legatza maionesarekin. Gauloises pakete bat erosten dut, zigarroak autoan ahaztuta. Frantzian, gauez, ez da kalean inor ibiltzen. Tabernak goiz ixten dituzte. Ostatura joatea izango dugu egokiena. Ez da izarrik ikusten. Eguraldiak lainotsu jarraituko du bihar.